

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 33/2018 FORU DEKRETUA, martxoaren 13koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzen da.

ZIOEN AZALPENA

2017ko urtarrilaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (12. zenbakiko BAO) argitara ematen da Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 3/2017 Foru Dekretua; haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula sozialak, ingurumene-koak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearaz-lea onartzen da. Xedapen horrek bide ematen du klausula horiek ezartzeko irizpide eta jarraibide zehatzak emateko; irizpide eta jarraibide horiek gida praktikoa batean bilduko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoko administrazio-espedienteetan sar-tu ahal izateko.

Foru Aldundiko Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusia-ren urtarrilaren 23ko 4/2017 Zirkularraren bidez zabaldu zen gida hori. Ordutik hona, klausulak Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako lizitazio-espedienteetan sartu diren urte-bete honetan, aukera eman da lizitatutako kontratuak arautzen dituzten baldintza tekni-koen agirietan eta klausula administratibo berezien agirietan halako klausulak sartzeko, adjudikazio-irizpide gisa zein kontratua exekutatzeko baldintza berezi gisa. Hala, kontra-tuei atxikitako langileen lan-baldintzak hobetzeaz gainera, besteak beste, lan-merkatura sartzeko zailtasuna duten pertsonen kontratazioa sustatu da; langabeziaren kontra egin da; oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatu da; laneko segurtasuna eta osasuna indartu dira; ingurumena babestu da, eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu dira.

Egindako ibilbideaz gainera, 2017ko azaroaren 9an, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea argitaratu zen; haren bidez, ordenamendu juridi-kora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktibak. Horrek eragin du beste bultzada bat ematea era honetako klausulei, legearen zioen azalpenean aurreratzen baita bi direla legea funtsatzen duten helburuak: kontratazio publikoan gardentasun handiagoa lortzea eta kalitate-prezio erlazioa hobea lortzea. Azken helburua lortzeko, lehen aldiz ezartzen da kontratazio-organismoek zaindu behar dutela adjudikazio-irizpideak diseinatzeak aukera ematen duela kalitate handiko obra, hornidura eta zerbitzuak egiteko, hain zuzen ere kontratuaren xedeari lotuta alderdi kualitatiboak, ingurumenekoak, sozialak eta berritzaileak sartuta.

Garbi dago hori dela helburua; izan ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak lehen artikuluan irmo ezartzen duenaren arabera, kontratazio publiko guztietan zeharka eta nahitaez sartuko dira irizpide sozialak eta ingurumenekoak, betiere kontratuaren xe-deari lotuta, ziurtasun osoa baitago horrek hobetu egiten duela kalitate-prezio erlazioa kontratuaren prestazioan eta efizientzia handiagoa eta hobea dakarrela funts publikoen erabileran. Eta, ildo berari jarraituz, legearen 28.2 artikulua dioenaren arabera, kontra-tazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, sektore publikoko erakundeek efizientzia zainduko dute, eta erabakitako baldintzak betetzen direla egiaztatuko; izapideak ahalik eta lasterren egin daitezkeen sustatuko dute; modu positiboan baloratuko dute kontratazio publikoko prozeduretan alderdi sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntza arlokoak sar-tzea, eta enpresa txiki eta ertainen partaidetza eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Adjudikazio-irizpideei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. ar-tikuluak erabat aldatzen du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren



arauketa; izan ere, 2014/23 Direktibaren 41. artikulua eta 2014/24 Direktibaren 67. artikulua edukia legera ekartzean «eskaintza ekonomiko onena» kontzeptua kendu eta irizpide ekonomiko eta kualitatiboan arabera ebaluatuko den «kalitate-prezio erlazio onena» kontzeptua erabiltzen baitu. Irizpide kualitatiboak, besteak beste, alderdi sozial eta ingurumenekoak buruzkoak izan daitezke, eta zerrenda bat dago, oso zehatza ez dena, ezaugarri sozialak eta ingurumenekoak jasotzen dituena.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezietan dagoenez, Legeak urrats sendo eta irmo bat ematen du klausulak sartzearen alde, eta 202.1 artikulua bigarren paragrafoak ezartzen du artikulua bereko bigarren zenbakian zerrendatzen diren baldintza berezieta-ko bat gutxienez ere jarri behar dela klausula administratibo berezien agirian; gainera, artikulua bereko 4. zenbakian, ezartzen du kontratua gauzatzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei eskatuko zaizkiela kontratuan jasotzen diren kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak.

Beraz, kontuan hartuta zioen azalpen honetan adierazitako lege-aldaketa guztiak, beharrezkoa da erregelamendu betearazle berri bat onestea aldaketa horietara egokitu-ua, betiere goragoko ordenamenduak ezarritako mugen barruan.

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat eta beharrezkotzat jo du erregela-mentu betearazle berri bat egitea, lehen aipaturiko arautegia aplikatu eta betearazteko. Erregelamendu horrek aukera eman behar die kontratazio publikoan ari diren eragileei klausula horiek legean ezarritakoa erabat beteta txertatzeko kontratazio-prozeduran.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude jasota eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Halaber, dekretu honen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten egokiak egin dira.

Bestetik, foru diputatuaren eskumena da, besteak beste, Foru Aldundiari proposame-nak aurkeztea haien sailerako gaien buruzko dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zu-zen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k artikulua.

Horregatik, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 13ko bileran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoaren prozeduran klausula sozialak, in-gurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko erregelamendu betearazlea onartzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Indargabeturik geratzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 3/2017 Foru Dekretua; haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran klausula so-zialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko errege-lamendu betearazlea onartzen da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. — Jarraibideak eta gida praktikoa egitea

Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusiak beharrezkoak diren irizpideak eta jarraibideak emango ditu foru dekretu honetan eta haren bidez onartutako erregelamenduan xedatutakoa aplikatzeko, sektore publikoko kontratuei buruzko lege-rian xedatutakoarekin bat etorrira.



Bestalde, Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusiak aldatu egingo du «Kontratazio administratiborako gida praktikoa: klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko irizpideak eta jarraibideak», klausulen ereduak kontratazio publikoaren arloko araudi berrira egokitzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da gida praktikoa.

Bigarrena. — Kontratuen erreserba

Kontratuen erreserbari dagokionez, foru-sektore publikoaren kontratazioan helburu sozialak sustatzeko bide gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorraren 41. artikuluan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 108/2016 Foru Dekretuak emandako idazketa hartuko da kontuan.

Hirugarrena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko martxoaren 13an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



ERANSKINA

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PROZEDURAN
KLAUSULA SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO
BATZUEI DAGOZKIENAK SARTZEKO ERREGELAMENDU BETEARAZLEA****1. artikulua. — Xedea eta eremu subjektiboa**

Erregelamendu betearazle honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoaren prozeduran klausula sozialak, ingurumeneoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko kontuan hartu beharreko printzipioak eta irizpideak jasotzea, goragoko ordenamendu juridikoarekin bat etorrira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publiko guztietan zeharka eta nahitaez sartuko dira irizpide sozialak eta ingurumeneoak, betiere kontratuaren xedeari lotuta, ziurtasun osoa baitago horrek hobetu egiten duela kalitate-prezio erlazioa kontratuaren prestazioan eta efizientzia handiagoa eta hobea dakarrela funts publikoen erabileran.

Kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organoek zainduko dute kontratazio-prozesuak gauzatzeko erabakitako baldintzak eraginkortasunez betetzen direla; izapideak ahalik eta lasterren egitea sustatuko dute; modu positiboan baloratuko dute kontratazio publikoko prozeduretan alderdi sozialak, ingurumeneoak eta berrikuntza arlokoak sartzea, eta enpresa txiki eta ertainen partaidetza eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean, erregelamendu betearazle honetan eta arloan nahitaez aplikatzea den gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera.

2. artikulua. — Printzipio informatzaileak

a) Adjudikazio-irizpide gisa zein kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa klausula sozialak, ingurumeneoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartzeko, Europar Batasuneko kontratazio publikoari buruzko araudian eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako oinarritzko printzipioak bete behar dira. Hau da, aipatutako klausulak sartzeko, printzipio hauek errespetatu behar dira: lehia, lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, prozeduren publikitatea eta gardentasuna, proportzionaltasuna eta lehiakideen arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna. Espresuki kanpo geratzen dira lurraldetasun irizpideak edo enpresa adjudikaziodunaren naziotasuna kontuan hartuta sartzen diren klausulak.

Berdintasunaren, proportzionaltasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak betetzeko, adjudikazio-irizpideak objektiboak izan behar dira, horrek bermatuko baitu eskaintzen alderaketa eta ebaluazioa modu eraginkorrean egiten direla, eta beraz, lehia egiazkoa dela.

Kontratazio-organoak kontratu publiko bat adjudikatzeko prozeduraren fase guztietan bete beharko ditu printzipio horiek.

b) Lotura bat egon behar da klausula sozialaren eta kontratuaren xedearen artean. Lotura hori edozein alderditan eta kontratuaren jarduera-zikloetako edozein fasetan eman daiteke, eta ekoizpenaren, prestazioaren edo merkaturatzearen prozesu espezifikoan parte hartzen duten faktore guztiak har ditzake. Adjudikazio-irizpide gisa zein kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa sartutako klausula bat kontratuaren xedeari lotuta dago baldin eta kontratu hori dela-eta egin beharreko prestazioei buruzkoa bada edo prestazio horietan sartuta badago kontratuaren edozein alderditan eta bizi-zikloaren edozein etapatan, prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreetan barne:

- b.1) Obra, hornidura eta zerbitzuen ekoizpen-, prestazio- eta merkaturatze-prozesu espezifikoan; erreferentzia berezia egiten zaie ingurumena zaintzen duten eta sozialki iraunkor eta bidezkoa diren ekoizpen-, prestazio- eta merkaturatze-erei;
- b.2) Bizi-zikloaren beste etapa baten prozesu espezifikoan, faktore horiek bere substantzia materialaren parte ez badira ere.
- c) Proportzionaltasuna egon behar da klausula sozialen, ingurumeneoen eta beste politika publiko batzuei dagozkien eta kontratuaren xedearen artean. Horretarako,



klausularen definizioan kontuan hartu beharko dira hauek: kontratuaren xedea, kontratuaren zenbatekoa eta iraupena, kontratua garatzen den jardueraren sektorea eta kontratu bakoitzaren helburua, izaera eta edukia.

3. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumeneoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak enpresa kontratista aukeratzeko fasean sartzea

1. Kontratuak adjudikatzeko, kalitate-prezio erlazioaren oinarri duten adjudikazio-irizpide batzuk erabiliko dira; erlazio hori irizpide ekonomiko eta kualitatiboan arabera ebaluatu behar da.

2. Prezioa ezin da adjudikazioaren faktore erabakigarri bakarra izan eta adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatu behar dira prestazio intelektuala ematen den zerbitzuetan (hala nola ingeniari- eta arkitektura-zerbitzuetan), segurtasun-zerbitzu pribatuak emateko kontratuetan, gizarte-zerbitzuak emateko kontratuetan (baldin eta sustatzen badute kontratua gauzatuko duten pertsonen artean babesgabe dauden pertsonak edo egoera ahulean dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea edo lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitako gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen kontratuetan, edo eskulan intentsiboko zerbitzuen kontratuetan.

3. Adjudikazio-irizpideak zehaztasunez adieraziko dira klausula administratibo berezien agirian, eta lizitaziorako deialdia egiten duen iragarkian jaso beharko dira; irizpide horietan, zehatzago, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Betiere, kontratuaren xedeari lotuta egon behar dute, erregelamendu honen 2. artikuluko b) letran ezarritako moduan.
- b) Modu objektiboan formulatu behar dira, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatuz, eta kontratazio-organoari ez diote aukerarik emango erabakietan askatasun mugagabea izateko.
- c) Irizpideek bermatu behar dute eskaintzak ebaluatzean egiazko lehia dagoela, eta zehaztasunak jasoko dituzte lizitatzailleek emandako informazioa eraginkortasunez egiaztatzeke, eskaintzek adjudikazio-irizpideak noraino betetzen dituzten ebaluatu ahal izateko. Zalantzarik badago, egiaztatu beharko da ea benetakoak diren lizitatzailleek emandako informazioa eta probak.

4. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumeneoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak kontratu publikoak gauzatzeko fasean sartzea

1. Klausula administratibo berezien agirietan, kontratua gauzatzeko baldintza berezi sozialak, ingurumeneoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak sartu ahal izango dira baldin eta kontratuaren xedeari lotuta badaude (erregelamendu honen 2. artikuluan xedatu bezala), zuzenean edo zeharka ez badira diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta lizitazioaren iragarkian nahiz agirietan adierazten badira.

Edonola ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202.2 artikuluan zerrendatzen diren kontratua gauzatzeko baldintza berezietako bat gutxienez ezarri beharko da klausula administratibo berezien agirian, puntu horretan ezarritakoaren arabera.

Horrez gainera, zerbitzu eta obren kontratuen eta obra eta zerbitzuen emakida-kontratuen klausula administratibo berezien agirietan, beharrezkoa izango da kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek sartzea:

- a) Ohartarazi behar da kontratuak bete egin beharko dituela indarrean dauden legeko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekeoak direnak.
- b) Lizitatzailleek adierazi beharko dute, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, hala-



ber, eskatzen den informazio guztia eman beharko dela, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz. Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- c) Zenbaki honetako b) letran adierazitakoa gorabehera, adjudikaziodunak sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.
- d) Prozesu horietan lehiatzen direnek borondatez onetsi beharko dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.

2. Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko Eusko Legebiltzarraren 3/2016 Legearen 6. artikuluekin bat eta estatuko araudiak kontratazio-prozeduretarako xedatzen duena errespetaturik, kontratazio-prozeduretan, dagokion hitzarmen kolektiboak esleipendunari zenbait lan-harremanetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharrak ezartzen badiot, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek beharrezko informazioa eman beharko diete lizitatzailerari, agirian bertan edo dokumentazio osagarrian, subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruz, neurri horrek berekin ekarriko dituen lan-kostuak zehazki kalkulatzeko ahalbidetzeko. Eta, aldi berean, adierazi beharko da informazio hori ematen dela artikuluko honetan xedatutakoa betetzeko.

Ondorio horietarako, kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den enpresak, eragindako langileen enplegatzailea bada, kontratazio-organoari eman beharko dio aipatutako informazioa, organo horrek hala eskatzen dionean.

Prozedura hauetako lizitazio-iragarkietan eta administrazio-klausula berezien agirien azaletan ohararazi beharko da halako kontratazioak berekin dakarrela langile guztien lan-kontratuen subrogazioa —hala badagokio, betebeharrak ezartzen duen arauan jasotako gutxieneko antzintasunarekin—, langile horiek beste kontrata batekoak izan arren kontratuaren xede den jarduera egiten ari baldin badira; horren ondorioz, enpresaburu berriari subrogatu egingo zaizkio aurrekoak zituen laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak eta betebeharrak.

Aurreikusten bada enpresa esleipendunak hirugarrenekin kontratatu ahal duela kontratuaren zati bat egitea, aukera hori arautuko duen klausula bat sartuko da administrazio-klausula berezien agirietan, eta berriaz jasoko da kontratista nagusiak bere gain hartuko duela kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean, administrazio-klausula berezien agirietan jasotakoari eta kontratuaren nondik norakoei zorrozki lotuz, barne hartuta arlo sozialeko eta laboraleko betebeharrak betetzea.

3. Klausula administratibo berezien agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.1 artikuluko f) eta i) letratan xedatutakoaren arabera, hain zuzen ere kasu hauetan:

- a) Bete ez den kontratu-betebeharrak funtsezkoa denean kontratuaren xedea betetzeko, betiere bi baldintza hauek gertatzen badira:
 - a.1) Muga hauek errespetatzea: interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio egokiaren printzipioen kontrakoak ez izatea.
 - a.2) Klausulak modu zehatz, argi eta garbian adieraztea agirietan edo deskripzio-dokumentuan; beraz, ez da onartuko izaera orokorreko klausularik.
- b) Kontratua gauzatzen ari denean gertatzen bada kontratistak ez dizkiela soldata ordaintzen parte hartzen ari diren langileei.
- c) Kontratua gauzatzen ari denean gertatzen bada langileen indarreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak betetzen ez direla.



Gainerako kasuetan eragingo du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 192. artikuluan ezarritako zigorra jartzea.

4. Kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie kontratuaren parte diren baldintza berezi guztiak.

5. artikulua.—Klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak betetzearen jarraipena

1. Bizkaiko Foru Aldundiren kontratazio-organoek erregelamendu honetan xedatutako betebeharrak betetzen direla zaindu beharko dute. Horretarako, agirietan jasoko dituzte ez-betetzearen ondorioak, hala nola zigorrak ezartzea, enpresaburuei kontratatzeke debekua ezartzea, edo kontratua suntsitzea baldin eta bete ez den kontratu-betebeharra funtsezkoa bada edo halakotzat jota badago Sektore Publikoko Kontratuen Legean.

2. Horretarako, kontratazio-organoak kontratua nola gauzatzen ari den ikuskatzeko eta itundutako prestazioa behar bezala egiten ari dela bermatzeko izendatutako arduradunak aldian aldiko jarraipena egingo du pertsona adjudikaziodunak klausula sozialak, ingurumenekoak edo beste politika publiko batzuei dagozkienak betetzeari dagokionez hartutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

3. Klausula sozialak betetzen ez direnean, kontratuaren arduradunak egoera horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta, beharrezkoa bada, proposatuko du zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea.

4. Edonola ere, egiaztatu behar da enpresa kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak betebeharrak hauek betetzen dituela: plantillaren % 2 desgaitasuna duten pertsonak izatea, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, eta, 250 langiletik gora duten enpresen kasuan, berdintasun plan bat izatea, Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako edukiarekin.

5. Kontratuen helburua zuzenean herritarrei zuzenduta badago edo herritarrek interesen bat badute kontratuan, komunikazio-kanal bat sortuko da herritarrek kontratuaren gauzatzeari buruzko iritzia eman ahal izateko. Izan ere, horrek lagunduko du kontratistak kontratuaren betebeharrak zorrotz betetzen; zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak bermatuko ditu eta kontratuaren xede diren prestazioen kalitatea, funtzionaltasuna eta iraunkortasuna ziurtatuko ditu.

6. Amaierako fakturarekin batera, kontratistak erantzukizunpeko adierazpen/zinpeko adierazpen bat egin beharko du, non adieraziko duen kontratua gauzatzeko legea edo kontratua dela-eta eskatu ahal zaizkion konpromiso eta baldintza berezi guztiak bete dituela (neurri horien zerrenda egingo du). Adierazpenarekin batera, kontratuaren arduradunaren txosten bat aurkeztuko da, non aztertuko den adierazpenean aitortutakoa eta kontratuan ezarritako betebeharrak benetan bete diren.